

Iñaki Zubeldia

IDAZLEA

## Utz gaitzazu bakean, Ares jauna

**A**

zken bolada honetan, Ares jaunak ertzainei langintza frenetiko jarri die herriko tabernetatik, kaleetatik eta hainbat etxetatik euskal presoek argazkiak kentzen.

Udalak ere behartu nahi ditu lan horietara, azkar, 24 orduko epean. Hori egin ezean, bere aginteria eta zigor hipotetikoak gainean izango dituztela mehatxu egin die.

Honek denak egoera baretu eta bakezko konbidentzia suspertu beharrean, liskarrak, isunak, egonezina eta hainbat jenderen espetxeratzea ekarriko du ziur aski. Eta badirudi hori lortu nahi dela “*de los nuestros*” ez direnen artean. Hogeitalau orduko epean kenduko ote dituzte Zigor Goikoetxearen etxetik “españolitoen” mehatxu higuigarriak? “Viva España terrorista” jarri zuten beste hainbat perlen artean. Hori ote da Ares jaunak lortu nahi duena? Norbaitek –GAL berriren bat ote dabil solte?– idatzi duen “España terrorista” hori gailentzea euskaldunon gainetik?

Giroa nahasten ari da, sorginen ehiza inpunitatez zabaltzen eta txinatarrek uigurren artean sortu duten egonezina eta etsipena barreiatzen ari dira dosi neurtuetan. Ertzaintza bera ere joko horretan erortzen ari da gazte euskaldunei esanez: “*Abora han cambiado los tiempos. Ahora está Ares*”. Badakit ertzain guztiak ez direla estrategia horren bultzatzaile eta aldeko,



DANI BLANCO

baina hainbat jokabide prepotente aurrera eramaten badira eta inork ez badu horren zilegitasun eza adierazten, jendeak interpretatzen du Ertzaintza osoak apoiatzen duela bide arriskutsu hori. Nola uler daiteke Bilboko gazte horren bahiketa ilegal eta terrorista, bi edo hiru aldiz, kolaborazioa eskatzeko, eta hori salatzen duenean, benetan atxilotzea ustezko ez dakit noizko ekintzak direla-eta. Oso bide oker eta arriskutsutik abiatu da estrategia hori diseinatu duen deszerebratua.

Udako oporrak eta herrietako festak datoz eta hainbat jende bere lagunak argazkiak jarriko ditu plaza publikoetan, elkartasuna adierazteko eta egoera justuago bat eskatzeko. Patxi Lopez lehendakaria eta beste hainbat buruzagi sozialista ez al ziren joan Vera eta Barrionuevo espetxean zeudenean bisitatzea eta beren elkartasuna adieraztera? Orduan ez zen indar polizialik azaldu manifestari haiek tiroka uxatzea. Noski, X jaunak aginduko zien beren koarteleetan egoteko lasai, musean edo tutean jokatzeko.

Ares jauna, elkarbizitzaren ize-nean, utz gaitzazu bakean udako festetan. Ertzain jaunak, herri honen zerbitzari bazarete, ez zaitzete erori politikari arduragabeen jokoan, eta herritarrenganako begirune osoz bete ezazue zuen lana, suari gasolina gehiago bota gabe. ■

«  
Ares jauna, elkarbizitzaren ize-nean,  
utz gaitzazu bakean udako festetan.

»  
Ertzain jaunak, herri honen  
zerbitzari bazarete, ez zaitzete erori  
politikari arduragabeen jokoan

»

TXANDAN

Juan Ramón Makuso

### Amatasuna



Ama Pepita gogon dut uneon. Eta Xixili ama bera

ere. Noski, nigan, lehenak eragin zuzena izan du nire bizitzako lehenengo unetik. Bestea, nerabezaroan ezagutu nuen. Nire lagunaren ama. Ez dakit biek ala biek zer sentazio izan zuten amatasuna bizi zutenean, ez baitiet entzun sekula sentimendu horretaz berba egiten egia esan. Agian ez zuten bizi ere egin sentimendu hori, ez zitelako aukerarik eman bizitzeko. Edo beraiekin bat zetorrelako, emakumeak, naturaz amak direlako, naturaltasunez hartu zuten beraien bizipen hori. Ni, noski, ez naiz ama, eta ezin dut sentimendu hori bizi. Besterik gabe, orain, kalaka bat bezala,

entzuten diet hainbat emakumei beren amatasunaz hitz egiten. Batzuetan, transzen-

dentzia handiz, beren bizitzako gailurrean bailiran. Eta deigarria egiten zait. Hainbeste, jokoan kanpo gelditzen naizela. Nire buruari galdetzeraino, ia hau berria den; zergatik ez dudan hau lehenagotik bizi. Bizi diot, sentipenak bizi egiten direlako. Galdera ere kezka bihurtzen zait. Naturaltasuna, haraindiko gertaera bezala bizitzeak ez ote duen ekartzen naturala den hori, fenomeno berria bezala ikusteak. Eta horrelako trataera ematea. Eta okerrera dena, amatasunaren ondorio zuzena dena, haur berria, gizaki berria, fenomeno bihurtzea. Aurretik asko gaudenean. Bera bezalakoak. ■